



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## LANKIDETZARAKO HITZARMENA (UPV/EHU) EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA ETA HABE-REN ARTEKOA, BI ERAKUNDEEN HIZKUNTZALARITZA APLIKATUAREN INGURUKO LIBURUTEGI-ZERBITZUAK OPTIMIZATZEKO.

### BILDURIK

Alde batetik, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea den Juan Ignacio Pérez Iglesias jaunak,

eta, bestetik, HABEren lehendakaria den Miren Azkarate Villar andereak,

### ADIERAZTEN DUTE

Hitzarmen hau izenpetzean biek agertzen dutela lankidetzan aritzeko interesa, helburua delarik bi erakundeen liburutegi-zerbitzuak optimizatzea, HABE Liburutegiaren funts eta baliabideak Unibertsitateari eskainiz, eta bide batez, horien erabilera sustatzea.

Proiektua ondorengo klausulen arabera egingo da.

### KLAUSULAK

#### Lehenengoa. –Helburua

UPV/EHUK eta HABEK, nork bere eskumen eta eginbeharren barruan, aurrerantzean sortuko den lankidetzara arautu nahi dute hitzarmen honen bitartez. Hitzarmen honen helburu nagusia hau izango da: hizkuntzalaritza aplikatuan espezializatua dagoen HABEren liburutegiaren funts eta baliabideak EHU/UPVko ikasle, irakasle eta ikertzaileek erabil ditzaten sustatzea eta, halaber, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea azterlan eta ikerketa unibertsitarioen interesgune bihurtu dadin bultzatzea.

#### Bigarrena.- Eremua

Bi erakundeen arteko lankidetzara honako eremu hauetakoa izango da:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

- a. Liburutegien arteko mailegua (bai liburuak, bai artikuluen kopia digitalizatuak edo paperean).
- b. Liburutegiaren katalogoa REBIUN katalogo kolektiboan sartzeko bideragarritasuna aztertzea.
- c. Liburu-erosketak koordinatzea.
- d. Aldizkarien harpidetza koordinatzea.
- e. Beste hainbat lankidetzak.
- f. Aurreko jarduerak bideratzeko, HABEko eta Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiko hainbat arduradunen artean bilerak egitea.

## **Hirugarrena.- Lankidetzarako araubidea**

### **a) Liburutegien arteko mailegua.**

Kontuan izanik HABE 30.000 dokumenturen jabe dela eta bere datu-basean 90.000 artikuluren berri ematen dela, liburutegien arteko maileguetarako, UPV/EHUK HABEko katalogoari emango dio lehentasuna Hizkuntzalaritza Aplikatuako dokumentuak eskatzeko orduan. Jokabide bera erabil liteke euskal argitalpenak eskatzeko.

Horren truke, HABEk konpromisoa hartzen du dokumentua dagokion fakultatera helarazteko eskaera egiten denetik hiru egunera gehienez ere.

Gainerakoan, maileguaren baldintzak REBIUNen indarrean daudenak izango dira.

### **b) Liburutegiaren katalogoa REBIUN katalogo kolektiboan sartzeko bideragarritasuna aztertzea.**

Ahaleginak egingo dira UPV/EHUK HABEren liburutegiari nolabaiteko onespena eman eta, horrela, REBIUNen katalogoan agertzeko UPV/EHUren liburutegi lankide gisa.

### **c) Liburu-erosketak koordinatzea.**

UPV/EHU eta HABE lankidetzan arituko dira liburu-erosketak koordinatzeko. Lankidetzak horren helburua baliabideak hobeto kudeatzea da. Horretarako, neurriak hartuko dituzte Hizkuntzalaritza Aplikatuaren eremuan, ahal eta komeni den neurrian, dokumentuen bikoiztasunik ez sortzeko, batez ere erabilpen urriko eta kostu handiko dokumentuetan.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## **d) Aldizkarien harpidetza koordinatzea.**

Liburuekin bezala, eta arrazoi berberengatik, bi erakundeek adostu egingo dituzte Hizkuntzalaritza Aplikatuaren esparruko aldizkarien hainbat harpidetza.

## **e) Beste hainbat lankidetzak.**

Goian aipatutako lankidetzak beste esparru batzuetara zabal liteke:

dokumentuen digitalizazioa

dokumentuen katalogazioa

eta, oro har, zerbitzuaren kalitatea hobetu, lana arindu eta baliabideak hobeto erabiltzen lagunduko duten esparru guztietara.

## **f) HABEko eta UPV/EHUko liburutegiko hainbat arduradunen artean bilerak egitea.**

Lankidetzak hau gauzatzeko bilerak, orokorrak zein kasuan kasukoak, egingo dira bi erakundeetako ordekariei eta liburuzainen artean.

## **Laugarrena.- Iraunaldia**

Hitzarmen hau formalizatzen den egunean bertan hasiko da eta 2008ko abenduaren 31 arte iraungo du. Hitzarmena urte naturalez luza daiteke, alderdietako batek espresuki salatzen ez badu behintzat, betiere hitzarmena amaitu baino hiru hilabeteko gutxieneko epearen barnean.

Aurrekoarekin ados, sinatzaileek dauzkaten eskumenez baliatuz, hitzarmen hau bikoizturik sinatzen dute Donostian, 2008ko apirilaren 14an.

**UPV/EHU izenean**

**HABEren izenean**

**Juan Ignacio Pérez Iglesias**

**Miren Azkarate Villar**